

EXCERPTA

19. zenbakia

1987-abendua

gaiak orrialdeak

• Ιδοὺ γὰρ εὐαγγελίζομαι ὑμῖν χαρὰν μεγάλην.....	409
O Eguberri Gaua.....	410
Alleluia Euskal Herria (J.G.Etxebarria).....	411
Hesiodo-ren Teogonia.....	412-413
Greko-Euskarazko Gramatika-konpo- saketa(Orike).....	414
Hymnus (J.G.Etxebarria).....	415
Katulo.....	416-418
Definitiones, etymologiae, explicatio- nes, e Sancti Augustini scriptis de- promptae.....	419-423
De vita exemplarium presbyterorum vasconum: (VI) J.M. IRURETAGOIENA.....	424
Grezia-ko Mitologia (barne-orrietako eranskina)	

Latin-grekozko idazleen
itzulpen-ikerketa lanak

Jon Gotzon Etxebarria

Gernika

ZORIONAK

Ιδοὺ γὰρ εὐαγ-
γελίζομαι ὑμῖν χαρὰν μεγάλην, ἥτις ἔσται παντὶ τῷ
λαῷ, οὐδὲ ἐτέχθη ὑμῖν σήμερον Σωτήρ, ὃς ἔστιν Χρι-
στὸς Κύριος, ἐν πόλει Δαυΐδ.

ecce enim evangelizo vobis gaudium magnum,
quod erit omni populo: οὐ quia natus est vobis
hodie Salvator, qui est Christus Dominus, in civi-
tate David.

(S.Lukas,8,10-11)

O E - GU - BERRI GAUD
 BOZ - KARIOZ - KO GAUD
 A - LLE - GERATZEN DU - ZU
 BI - HO - TZEAN KRISTAUD
 MUN - DU GUZTI - A DU - ZU
 ZO - RI - O - NEZ BE - THE - TZEN:
 ZER - GA - TIK BAITI - O - ZU
 SAL - BA - TZAI - LLEA EKHARTZEN
 ZER - GA - TIK BAITI - O - ZU
 SAL - BA - TZAI - LLEA EKHARTZEN

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Jainkoa sortu zaizu Belen-en;
askatasuna Hark bai emanen!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Horra Jainkoa eginik gizon;
urrun negarrak, izan zorion!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Ahozpez gorets Jainko Umea,
Berau bait duzu Salbatzailea!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Aingeruak hitz: "Gaudium magnum",
Hark gordeko zu beti euskaldun!

Η ΣΙΟΔΟΥ

ΘΕΟΓΟΝΙΑ

- 91 'Ἐρχόμενον δ' ἀν' ἀγῆνα θεὸν ὃς οὐδόκονται
αἰδοῖ μειλιχῆη, μετὰ δὲ πρέπει ἀγρομένοισιν.
τοῖη Μουσάων λερὴ δόσις ἀνθρώποισιν.
Ἐκ γάρ τοι Μουσέων καὶ ἐκηβόλου Ἀπόλλωνος
ἀνδρες ἀοιδοὶ ἔχονται χθόνα καὶ κιθαρισταί,
ἐκ δὲ Διὸς βασιλῆες δ' ὅλβιοις, διὸς τινα Μοῦσας
φιλονταῖ γλυκερή οἵ ἀπὸ στόματος ῥέει αὐδῆη.
98 Εἰ γάρ τις καὶ πένθος ἔχων νεοκηδέῃ θυμῷ
ἀξηται κραδίην ἀκαχύπενος, αὐτῷρις ἀοιδὸς
Μουσάων θεράπων κλέας προτέρων ἀνθρώπων
ὑμνήσῃ μάκαράς τε θεούς, τοῦ "Ολυμπον ἔχουσιν,
αἴψ' ὁ γε διυσφροτυνέων ἐπιλύθεται εὑδέ τι κηρέων
μέμνηται ταχέως δὲ παρέτραπε δῶρα θεάων.
- 104 Χαίρετε, τέκνα Διός, δότε δ' ἴμερέεσσαν ἀειδήν.

Biltzarrera doala, Jainko bailitzan hartzen dute lotsaz eta samurtasunez; eta biltzarkideen artean nabarmendu egiten da. Horrelako emaitza sakratua egiten diete Musek gizonei. Musei eta Apolo gezidunari esker daude eta, lur gainean, olerkariak eta kitara-jotzaileak. Erregeak, ordea, Zeus-engandikoak. Zorionekoa Musek maite dutena! Haren ahotik bai ahots eztia irteten dela! Inork, barrua zauritu berria, bihotza larriturik bādu, olerkariak, Musen zerbitzariak, lehenagoko gizonen ekintzak eta Olimpoko Jainko zoriontsuak goraipatzen baditu, berehalaxe kezkak ahantzirik ez da gehiago naigabeez gogoratzen. Jainkoen emariek behingoan era maten dizkiote urrun kezkak.

Agur, Zeus-en alabok! Emaidazute zuen zoragarriko kanta. (vv.:91-104)

GITXITASUNA:ádakrys=negar-agor

apistia=síñestetxo, xiñixte. Berri Onaren adibidean ez da sinesterik eza guztizkoa, esaten bait da: "Credo, Domine, adjuba incredulitatem meam (exigua credulitatem meam). Grekoz zehatzago esan zi- tekeen oligopistia:sinesmen urria." Modicae fidei" e sakera siñets-urri esan liteke. Grekoz badago oligos ekin egindako oligochronia=alditxo.

EZINTASUNA:adiEgEtos=esan-ezina

ábrotos=illezina, illezkor(erdi herrikoia) Batzuk ezin 1. eta 2. atalak direnean nahasi egiten dituzte. Eginézina(e ozen eginez)da "imposibilidad de hacer". Ezinegina(e motelago eginez)da "dificultad grande de hacer". Ezinila du-k esan nahi du: "no acaba de morir". Ilézinada="que no puede morir". Ezin èsana du=tiene afasia"; esanézina da="es indecible". Bereizkuntza hau ez da egiten euskalki guztietan; baina batzueta bizirik dago eta, literatura-erabile ra zilegi da.

ZAILTASUNA:aboúlentos=baitaragaitz, irreflexivo

abýrsentos=gozakaitz, eztikaitz
akatórthotos=zentzagaitz
amalaktos=minberakaitz=de poca sensibili dad. Hoy soraio, mingor
ágrypnos=lo-zail
ábrotos=yangogor
agélastos=irrigogor. Cfr. irribera bere aurkakoa: propenso a la risa
amógetos=nekagogor, dura para la fatiga

(jarraitzeko)

J.G. ET XEBARRIA

HYMNUS

Deus, Pater misericors,
ecce servus tuus inops
ad te venit rogaturus:

Da mihi in hac vita pacem,
in postrema hora faciem
tuam ut videam securus.

Salvam fac patriam meam,
ab excidio serva eam,
ne pereat cum malignis.

Deus meus, omnia mea,
lingua nostra euskerea
laudet te semper in hymnis.

KATULO

XI

Furi et Aureli, comites Catulli,
 siue in extremos penetrabit Indos,
 litus ut longe resonante Eoa
 tunditur unda,
 siue in Hyrcanos Arabasue molles,
 seu Sagas sagittiferosue Parthos
 siue quae septemgeminus colorat
 aequora Nilus,
 siue trans altas gradietur Alpes
 Caesaris uisens monumenta magni,
 Gallicum Rhenum, horribilesque ulti-
 mosque Britannos,
 omnia haec, quaecumque feret uoluntas
 caelitum, temptare simul parati,
 pauca muntiate meae puellae
 non bona dicta.
 cum suis vivat valeatque moechis,
 quos simul complexa tenet trecentos,
 nullum amans vere, sed identidem omnium
 ilia rumpens;
 nec meum respectet, ut ante, amorem,
 qui illius culpa cecidit velut prati
 ultimi flos, praeterunte postquam
 tactus aratros.

ANTINOÖ
Avtivooç

Ulises kanpotik zela, Penelope-rekin ezkontzeko as-
 moz jauregira samaldan sartu ziren senargaien buru-
 a. Indarkeriaz, bortizkeriaz, harrokeriaz eta gogorke-
 riaz zen nabarmen. Telemako garbitu nahi du, lagunak
 Ulises-en ondasunez jabetzena bultzatzen ditu eta
 Eumeo iraintzen du, txerrizain zaharrak bere ugaza-
 ba jauregian sartzen duenean. Iro eskalea Ulises-en
 aurka berotzen du, ez bait zuen ezagutu; eta azkenik
 Ulises-en lehenengo geziak hiltzen du, edontzia ez-
 paineratzear dagoela. Beharbada hortixeek dator "on-
 tzitik ezpaineratara tarte handia dago" esakera.

Guk euskaldunok badugu antzeko esaera zuhurra:
 "Eskurean aora okelea galdu doa".
 R.S., 176garrena; "Refranero Vasco-Los Refranes
 y Sentencias de 1596"; Julio de Urquijo, tomo II;
 Colección Auñamendi, 55. zenbakia

Hona hemen Antinoo-ri buruzko pasarte batzu Odise-
 atik hartutakoak.

Aita Santi Onaindia; "ODISEA"; Bilbo, 1985.

656 Noemon.—Antinoo! Ba-dakigu, ausaz, Telemako noiz biurtuko dan Pilos aretsutik? Neure ontzian joan zan, ta Elide zabalera joateko bera bear dot orain, an daukadaz ba amabi sabel-beor eta mando eroapentsuak oindiño ezi barik, eta oneitatik bateren bat ekarriko neuke ezteko.

661 Au esan eban; eta zurturik gelditu ziran Telemako'k Pilos erako, Neleu'ren urirako bidea artu ebanik ez ebclako uste, mendian zalakoan bai egozan txarrizaiñen txabolan bere ardiak ikusten.

710 Penelope.—Otsegille! Zelako asmoz bialtzen zaitue senargai leiñargiak? Agian, Odis jainkotiaren neskameai lana itxi ta oturuntza gertatu dagitsela, esateko? Oba, bai, nire uzian ibiltea ta bizileku au sarritatzea lagako ba'lebe, euren azken orritsa gaur ospaturik. Zuok, sari be satri alkartuaz, Telemako zurraren yarauntsia osotzen daben ondasun ugariak urtzen dozuezanok: ez zeuntasen entzun zeuen gurasoai, oindiño ume zintzazela, zelan erabilli zituan Odis'ek; onek ez eutson iñori kalterik egin, ez eban errian iñoren kontra berba mingarririk esan, errege jainkotiak sari egin oi daben lez, gizaseme batzuk iguindu ta beste batzuk maite izanik? Arek ez eban egundo, gaiztakeri txikienak be, iñundiko gizonen aurka egin; eta orain ondo nabarmenak dira zuen gogo txar ta zuen egintza gaiztoak, artutako mesedeakaitik ez bait dozue esker onik erakusten.

(Odisea, IV KANTUA; 64-65-67 orrialdeak)

481 Antinoo.—Onezkerro, ez dot uste, atzera biurtzerik daukazunik, ezta gizategi ontatik zigortzaka urteterik be, orrenbesteko iraiñak oguzia zarean ezkerro.

483 Mintza zan; eta, aurkia arturik, bota eutson, esku-mako sorbaldan, bizkar guenerantza joaz. Odis'ek, arkaitza iduri, tinko iraun eban, Antinoo'ren kolpeak bape ukurrik era-giteke; baiña ixillik buruari eragin eutson, bere kolko barruan asmorik txarrenak naasi ta irabioturik. Atzeratu zan beingoan ate-aurrera, lurrean jarri ta beterik eroian zakutoa ondoan itxirik, erauzi eutsen senargeiai:

490 Odis.—Entzuidazue, erregiñ gurenaren senargeiok, esan dagizuedan gogoak barne zuoi iragarteko eskatzen daus-

tana. Iñungo gizonek ez dau samiñik ariman, ezta naigaberik be, bere etxaldeagaitik, bere idi naiz ardi zuriakaitik burukatzean artutako zauriakaren; baiña Antinoo'k neu zauritu nau gizaseimeai ainbat gaitz dakartsean sabel iguingarri ta itsa dala-ta. Iñun jainkorik baldin ba'da ta Erini'k eskekoentzat, ora begio eriotzak Antinoo'ri, ezkontza amaira aurretik.

499 Antinoo, Eupite'ren semeak, egotzi eutson barriobe:

500 Antinoo.—Jan egik, nare jarrita, o arrotz!, edo-ta oa beste nimbatera: gazte oneik, diñokanagaitik, tatarrez oin batetik naiz esku batetik oratuaz, etxeen zear erabilirik, gorputza osorik zauriz josi ez daizuen.

(Odisea, XVII KANTUA, 238-239 orrialdeak)

288 Odis.—Entzuidazue zuok, erregiñ gurenaren senargeiok, adierazo dagizuedan barruak zuoi esateko agintzen daus-tana; eta Eurimako ta adioneko itzok otsegin ditun Antinoo'ri esku bear daus-te batez be: laga oraingoz uztai ta bere Jainkoekiko, ta biar goi-ezpirituren batek bear dauan kemenemongo dautso berak naien dauanati. Ia, emoidazue uztai on-do leundua ta zeuokaz negur-aziko dodaz neure beso ta indarrak; ausaz nire soin-atal zinbel-zaaletan beñiolako kemenik dodan ikusiko dot, edo-ta ortik zearko bizitzak eta ardurarik czak motel-azo ta galdua dan.

298 Onan mintzatu zan. Suak artuta geratu ziran danak, uztai leuna tresnatuko ebalako bildurrez. Eta Antinoo'k gogor artu eban, edu onetan itz-egiñik:

301 Antinoo.—O, atzerritarren artetik doillorren! Igan ez yagok zentzun izpirik. Ez al dok naikoa gugaz, argiokaz, jan-edanean nasai jarritik egotea, oturuntzako ezertzko be palta ez-ta? Ez ete yak naiko gure itzak eta autuak entzutea, iñundi-ko erbestetarri ez eskekorri izten ez yakon lez? Bear bada arda gozoak zorabiatzen au, gale, minguru ta neurri barik edan oi daunari kaltea dakartso-ta. Ardaok kalte egin eutson Eurition zaldi-gizon zangarrari, lapitaren eskualderra joanik Piritoo biotz-zabalaren jauregian aurkitu zanean. Errazoa ardaok lausotua euki cbancko, zoraturik, egintza zitalak buru-tu zituan Piritoo'ren etxeen; gizurcnak, samin aunditan, ora-tu eutsoen, eta, aterantza narras eroanik, belarriak eta surra ebagi cutsoczan borontze gordiñcz; eta orrelaxe joan zan, adi-men naasiaz ta bere ertuaren zigorra gogo gaixoz eroanik. Olako jatorria izan eban zentaur eta gizonen arteko liskarrak; baiña axe izan zan lencengo bere buruari zoritxarra ekarri eutsona, ardaoz bete zalako. Era beraean, iri bc ezbear eskerga bat iragarten dauat, uztai tenkatzera jaritxiko ba'intza; erri onetan ez au ba iñok habestuko, ta laster bialduko augu on-tzi baltzean ilkor guztien izurri dan Eketo cregearengana, eta aregandik ez dok igesik egingo, ez osasunez ez bizirik. Edan egik, ba, nasai ta ez adi sar burrukan cu baiño gazteago di-ran gizonakaz.

(Odisea, XXI KANTUA; 289. orrialdea)

XI

Orduan Odis asmotsuak, jantzi-dandarrak erantzi, atarte garairaz zapart egin uztaiaz ta karkaiz gezi ariñez orniduaz ta, oneik bere oin-aurrean barreiatuaz, tankera ontan mintzatu yaken senargaiai:

5 Odis.—Amaitua da onezkerro leiaketa neketsu au; orain beste itu batera egotzikor dot, iñoiñongo gizasemek egotzi ez dauanera, ta ikusiko dot apara egiten dodan, Apol'ek aintza ori dagistalarik.

9 Au esan ebanekoze, Antinoo'rantz zuzendu eban ezten mingotsa. Au urrezko txol eder bat, kirten bikoa, jaso ta berai eskuan ebala aurkitzen zan ardoa zurrupatzeko, eriotz-gogaiaren garraztasun barik ain zuzen be; nok uste izan eikean, ainbat mailagunen artean, gizon batek bakarrik, naiz-ta bipil-adoretsua izan, erio ain txarra ta adur baltza eman leikeonik? Odis'ek, bada, eztarrian jorik, geziñaz zauritu eban onen puntea sama samurretik agertzeraiño. Atzerantza jausi zan Antinoo, zauria artzean; eskuetatik lurrera yakon txola, ta aren surretak giza-odolezko txarrastada Iodia erion. Ots-otsean maiari saka eragin eta oiñaz ikuturik, jatekoak lurrera yakezan, ogia ta aragi erreña bertan loituaz. Jausita ikusi ebenean, iskanbil izugarria atera eben senargaiak jauregi barruan; jarlekuak itxi ta, aretoan ara ta ona, ondo landutako ormetara zorroztu zituen euren begiak; baiña ez zan agiri ezkutarik bat bera be, ezta oratzeko lantza sendo bat be. Eta agiraka egin eutsoen Odis'i itz asarrekorrakaz:

(XX KANTUA, 294. orrialdea)

(Homero, "ODISEA"; Aita Santi Onaindiak euskaraztuta; Bilbo, 1985)

Furi eta Aureli, Katulo-ren lagun,
inditar artera balihoa urrun;
urrun, sortaldean, zarataz dihardun
kresala apurtzera doanean, astun;

edo Mirkaniar eta Arabe samur,
Saga zein Partiar azkonetatik hur,
edo Nilo zazpi adarduna itsas-ur
margozle egiten den alderdira bihur;

edo Alpetako gailurrak iragan,
Kesar handiaren garaitzak gogoan,
Galia-ko Reno edo Britanian
diren azken basak ikustatzekotan.

Guzti haukek eta goikoen gurariz
beste edozer jasan beharrean banintz,
lagun zintzo joan, nire neskari hitz
laburretan berri txarrak iragarriz:

bego ongi bere amoranteekin,
batera laztandu hirurehunokin;
bat ere ez du maite benetan ta berdin
egingo du denon sarkutzak desegin.

Ez beza itxaron nire maitasunik
lehen legez; bere erruz dago hilik,
soro bazterreko lorea holanik,
goldea igaroz gero erauzirik.

101 JAKINTZA : "Non enim scientiam solemus dicere in nobis, nisi cum sensa et intellecta memoria retinemus: cum meminimus aliquid sensisse nos vel intellexisse, ut id cum volumus recolamus".

(De diversis quaestionibus ad Simplicianum, Lib.II, 2-2)

Gu baitan jakintza dela ez dugu esaten, sentidutako a eta aditutakoa oriomenean josten dugunean baizik : guk zerbait sentidu edo ulertu dugula gogoratzen dugunean, nahi dugunean burura berriz ekartzeko .

Aurreko "ratione habere perceptum" laburrago eta rationalago ere bazea; oraingoan luzeago aritu da eta adimenez atxekia izateko baldintzak nabarmendu egin ditu.

102 JAUNGOIKOZALETASUNA : "Ecce pietas est sapientia. Θεοσέβεια porro si ad verbi originem latine expressam interpretaretur, Dei cultus dici poterat, qui in hoc maxime constitutus est, ut anima ei non sit ingrata".

(De spiritu et littera, XI, 18)

Horra jaiera nola den jakituria. Θεοσέβεια hitza ren latinezko jatorriari begiratuta, Jaungoikoaren gurtza esan liteke. MONTAN datza batipat gurtza eta: gogoa ez dakiola izan eskertxarrekoa".

03 JAUNGOIKOAREN GURTZA : "Quod nomen nostri, sicut iam commemoravimus, volentes et ipsi uno nomine interpretari, pietatem dixerunt, cum et pietas apud graecos εὐσέβεια usitatius nuncupetur: θεοσέβεια vero quia uno verbo perfecte non potest, melius duobus interpretatur, ut dicatur potius Dei cultus".

(De Trinitate, Lib. XIV, 1-1)

Eta guretarrek, esan dugunez, izen hori izen bakar batez itzuli nahiez, jaiera esan zuten. Jaiera grekoen artean maiztxo εὐσέβεια esaten da eta. θεοσέβεια, aldiz, berba batez egokiro ezin eta bi hitzez hobeki itzultzen da, hobekixeago Jaungoikoaren gurtza esanez.

04 JAKINTZA-ZUHURTASUNA : "Σοφίζαται autem, quod uno verbo latine dici non potest, a sapientia dictum est, quae sophia graece dicitur, non a prudentia, quae φρόνησις appellatur".
(Enarrationes in Psalmos, 104, 14)

Eta σοφίζαται, latinez berba bakarraez esan ezin de na, jakintzatik hartua izan da, grekoz σοφία esaten den hitzetik, alegia; eta ez zuhurtasunetik, hori grekoz φρόνησις esaten bait da.

Las palabras "sofista" y "sofística" tienen una historia que es conveniente conocer. "Σοφίστης" (Sofista) es una palabra derivada del adjetivo "σοφός" (sabio) y directamente del verbo "σοφίθωνται" (idear, inventar), y que originalmente designaba a toda persona que ha llegado a destacarse en alguna clase de actividad. Es curioso observar que el cambio de los términos "σοφία" y "σοφός" desde su significado primitivo en Homero —más traducible por "destreza" y "diestro" en una ocupación determinada— hasta un significado más generalizado y relacionado con el conocimiento, hizo que pasara a denominar algo próximo a la veracidad de quien mereciera ese calificativo. Así, por ejemplo, Píndaro podía escribir que el sabio es el que conoce más por naturaleza. Esquilo, que el que tiene un conocimiento útil es sabio, no el que tiene muchos conocimientos. Por su parte, la palabra "σοφίστης", sofista, es un nombre derivado del verbo "σοφίστεσται" —practicar "σοφία". Diógenes Laertio puso de manifiesto que en principio "σοφός" y "σοφίστης" eran sinónimos.¹ El término implicaba, por otra parte, la idea de educación, lo que concuerda con que se aplicara a los poetas, considerados en Grecia, generalmente, como los grandes educadores.² El "sofista" enseña porque tiene un conocimiento o una destreza especial que impartir; bien sea en las artes técnicas, en la conducta o en la política su "σοφία" es práctica.³ La suspicacia respecto de los "intelectuales", y pedagogos de oficio, por parte de los atenienses más conservadores pertenecientes a la clase aristocrática, hizo que sus cualidades llegaran a calificarse como algo "δεινός", palabra difícil de traducir y que vendría a significar "temible" o "extraño" pero también y particularmente experto y hábil en la argumentación.⁴

(Neus Campillo Iborra-Serafin Vegas Gonzalez;
"Sócrates y los Sofistas", Universidad de Valencia, 1976; 67-68 orrialdeak)

105 JAKITURIA : "Et in hominibus haec quidem ita discerni probabiliter solent, ut sapientia pertineat ad intellectum aeternorum, scientia vero ad ea quae sensibus corporis experimur".

(De diversis quaestionibus ad Simplicianum, Lib.II, 2-3)

Gizonen artean era honetara bereizi ohi da gehien bat, hau da: jakituria betikoen ulertzeari dagokio batz ere; zientzia, ordea, gorputzaren zentzumenen bidez nabari ohi ditugunei dagokie.

Platonismoaren aztarna nabarmena jakituriaren definizio hortan: "intellectum aeternorum".

106 JARDUN(HIZKETAN) : "Quod graecus habet ἀδολεσχεσω , latini interpretes quidam garriam, quidam exercebor, interpretati sunt; quae duo inter se videntur esse diversa: sed si exercitatio intelligatur ingenii, cum quadam delectatione disputationis, utrumque conjungitur, et quasi ex utroque unum aliquid temperatur, ut non sit aliena ab huiusmodi exerventione garrulitas. Solent enim garruli vocari loquaces."

(Enarrationes in Psalmos, 118, VI-4)

Grekozkoak ἀδολεσχεσω dakarrena, latin-itzultzai leek, batzuk berriketan arituko, eta bestetzuk hizketa ihardungo itzuli zuten. Eta badirudi biok oso bestelakoak direla. Alabaina, adimenaren ariketa ultzen bada, eztabaidaren atsegina pizka batez, bi-

ok nahasi egiten dira, eta bataren bidez bestea neurri gertatzen; horrelako ihardunbeharrean ez da petuko hitz-jarioa. Hitz eta pitz ari direnei hitzontzi esan ohi zaie, bada.

Euskaraz badugu hitz-mordoa horrelako berbaldunei e sateko: berbalapiko, hitzontzi, kontakatilu, hitz-jario eta abar. Gogoratu Quevedo-ren "habladores a cántaros" hura.

107 JARDUNBIDE-EGINBIDE : "Vide ergo ne non discantur mala: nam disciplina, nisi a discendo non dicta est".
(De libero arbitrio, Lib.I, I-2)

Begira, gero, txarrik ikas ez dadin; ikasbide(jardunbide)ikasi-tik eratorria bait da.

Latinez hobeto ematen du hitz-jokoak: disco > disciplina erraz ikusten da bien arteko antza eta bigarrenaren sorkuntza.

(jarraitzeko)

DE VITA EXEMPLARIUM PRESBYTERORUM VASCONUM

In provincia Gipuzkoa natus, sed in Bizkaia ministerium sacerdotale exercens, ut moderator spiritualis iuvenum in Seminario, in populo Derio. Magnanimo spiritu et notabili sensibilitate praeditus ad spirituum probationem. Ecclesiam vehementer amans, linguam patriam tanquam donum Dei aestimans, sive ad formationem personae sive ad apostolatum colendum. In die eius natali iuvenes ad eum venientes ut ei gratularentur suaviter suadebat ut lingua vasconum facherent, si vascones esse eos sciebat. (Fuit aliis in Vitoria, Jose Maria Urrutia, qui nomina vasconice scripta discipulorum atramento delebat ut postea ipse ea hispanice scribebat. "Quaeque ipse miserrima vidi... vasconum ut opes et lamentabile regnum eruerint...", si Virgilium imitari liceat...)

Fuit quondam homo iuvenis a presbytero Antonio Morales in tormentis animae et corporis vehementer cruciatus propter odium vasconum, adeo ut vita eius periclitaretur. Cumque Antonio Barquin, Alfonso Muñoz et Emilio Avellanal huic impio sacerdoti laetitia exsultantes plauderent, Jose Maria Iruretagoiena spiritu sacerdotali motus sic locutus est ei qui Morales nomen habebat: Non licet tibi fratrem cruciare, quia et hic etiam, et si non sit sacerdos, est pars Christi Corporis Mystici

I
riun
iu
tu e
prob
am t
pers
tali
avit
nes
a Ur
atra
ret.
et 1
ri l
Fuit
es i
tus
tare
o Av
plau
li mo
:Non
si no

Abenduaren 8an, Andre Maria Sortzez Garbia

Orreagako Ama



Hymnus

Jesu, corona Virginum,
Quem Mater illa cón-
cipit,
Quae sola Virgo pártu-
rit,
Hæc vota clemens á-
cipe:

Qui pergis inter lilia,
Septus choréis Virgi-
num,
Sponsus decorus glória
Sponsisque reddens præ-
mia.

Quocumque tendis,
 Virgines
Sequuntur, atque láudi-
bus
Post te canentes cùrsi-
tant,
Hymnósque dulces pér-
sonant;
Te deprecámur súp-
plices,
Nostris ut addas sénsi-
bus

Nescire prorsus ómnia
Corruptiónis vúlnera.
Jesu, tibi sit glória,
Qui natus es de Virgine,
Cum Patre, et alino Spí-
ritu,
In sempitérna sácula.
Amen.

Josu, Birjinen koroe,
Amak sortu bait zintuen
Birjina gelditu zela,
har onez gure eskaintza, arre

Loreen artean zoaz,
Birjin-taldeak inguruz,
aintzaz beteriko senar,
ezkontideak sarituz.

Edonora jo, Birjinak
goraka eta abestiz
badoaz zure atzetik
jarraiki, eresi eztiz.

Apal eskatzen dizugu,
arren, gure zentzumenek ez
dezatela jasan inoiz
oben-zauririk bat ere ez.

Birjinagandik sortua
zaren Josu-ri omena,
Aita, Gogo Gurenari,
gizaldietan barrena.